

MERCABILBAOK ETA BILBOKO PORTUAK FRUTAK ETA ORTUARIAK BERBIDALTZEKO BERE ESTRATEGIAREN ABANTAILAK JARRI DITUZTE BALIOAN HEGO ETA ERDIALDEKO AMERIKAKO ENPRESARIEN AURREAN

- **Mercabilbaok eta Bilboko Portuak batera hartuko dute parte Fruit Attraction Azokan urriaren 18tik 20ra, euren nazioartekotze estrategia azpimarratzeko**
- **Enpresen arduradunek Elikadura Unitatearen instalazioak bisitatu dituzte eta barazki-fruta handizkarien lana ezagutu dute networking saio batean**
- **Bilboko Portuan frutetarako instalazioak, Noatum Terminal Bilbaok kudeatzen duen edukiontzietarako terminala, Muga Ikuskapeneko Portua eta produktu galkorren biltegia ezagutu dituzte**

Basaurin, 2017ko urriaren 17an.- Mercabilbaok eta Bilboko Portuak Fruit Attraction azokan, nazioarteko fruta eta ortuari ekoizpenaren ordezkaritza zabalena jasotzen duen nekazaritza sektoreko ekitaldi nagusian (urriaren 18tik 20ra IFEMAn) elkarrekin izango duten partaidetzaren bezperatan, Bilboko erakunde biek zenbait lan jardunaldi egin dituzte Hego eta Erdialdeko Amerikako enpresen arduradunekin. Enpresari horiek Madrilera joango dira ondoren, azokan parte hartzeko.

Hitzordu horretan, Mercabilbaok eta Portuak Hegoafrikatik eta Amerikatik datorren generoa sartzeko atea bilakatzeko egin duten apustua eta frutak eta ortuaria Europara eta Penintsulako gainerako lekuetara berbidaltzeko duten gaitasuna balioan jarri ahal izan da. Barazkien eta fruten errepideko garraioaren aurreko alternatiba bikaina.

Bisitak anfitrioiek gidatu dituzte, Aitor Argote Mercabilbaoko Zuzendari Nagusiak eta Amaia Sarasola Bilboko Portu Agintaritzako Marketin eta merkataritza Saileko buruak. Hasteko, lehen jardunaldian, taldeak Mercabilbaoko

instalazioak bisitatu ditu, jarduera gehieneko orduan, bertako produktuen kalitatea eta bertan aritzen diren handizkarien lan bikaina ezagutzeko. Hurrengo egunean, bigarren jardunaldia Elikadura Unitatean hasi da, Bilboko bi erakundeen nazioartekotzerako estrategia baterakoari eta ortuarien-fruten inportazioaren eta esportazioaren erreferente gisa eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko aurkezpenarekin. Bisitak networking saio batekin jarraitu du, Bilboko eta bere eraginpeko guneko fruta eta ortuari handizkariekin, sinergiak sortzeko eta horien lana ezagutzeko xedez.

Basauriko instalazioetatik egindako ibilbidea amaitu ondoren, taldea beste interes puntu batera joan da, Bilboko portura. Bertan, frutetarako instalazioak, Noatum Terminal Bilbaok kudeatzen duen Bilboko Portuko edukiontzietarako terminala, Muga Ikuskapeneko Portua eta produktu galkorren biltegia ezagutu dituzte.

Bilboko Portuak Estatu iparraldeko edukiontzi terminal garrantzitsuena eta, aldi berean, kalatu handienekoa dauka; eta mundu osoko 900 portu ingurura lotzen duten itsas zerbitzu ugari eskaintzen ditu.

Mercabilbao eta Bilboko Portua Fruit Attraction azokan

Hirugarren urtez jarraian, Bilboko Portuak eta Mercabilbaok elkarrekin bidaiatuko dute Madrilera, Fruit Attraction Azokan parte hartzeko, euren nazioartekotzerako estrategia balioan jartzeko helburuarekin. Estatu iparraldeko ortuarien eta barazkien Elikadura Hub inportatzaile eta esportatzaile gisa finkatzeko apustua. Aspalditik ari dira hori egiten, bi erakundeen arteko hitzarmenari esker, merkantzien sarrera eta irteera fluxuak handitzeko aukera eskaintzen dien nazioartekotzerako estrategiaren bitartez, dauden sinergiak kargatzaile eta itsasoko linea gehiago erakartzeko baliatuz.

Asmo handiko apustu horri esker, Bilboko sozietate publikoak Europako hainbat porturekin loturak ezartzeko aukera du, Bordeleko Merkatu Nagusiarekin, besteak beste. Merkatu horrekin lankidetza estua du, Euskadi-Akitania euro-lurraldearen barruan baterako jarduerak aurrera eramateko. Are gehiago,

Bilboko eta Bordeleko Udalek lankidetzarako hitzarmena sinatu dute duela denbora gutxi, ekonomiaren garapenean, hirigintzan eta talentuaren erakarpenean eta euspenean bi hiriak gehiago hurbiltzeko.

Mercabilbaok duen kokagune estrategikoa dela eta, Paris-Hendaia-Madril ardatzak bat egiten duen puntutik oso gertu, Iparraldeko autobiarene ondoan, eta lotura zuzenarekin autobide sarearekin, Bilboko Portuarekin batera leku ezin hobean dago nazioartekotze estrategia eraginkorra eta kalitatezkoa aurrera eramane ahal izateko. Abantaila lehiakorra da ortuarien eta fruten sektoreko operadoreentzat, baliabideen, ekonomiaren, denboraren, dauden azpiegituren edo biltegi logistikoen ikuspegietatik.

2016an 217.600 tona fruta, barazki eta ortuari inguru igaro ziren Mercabilbaoko instalazioetatik.

Bilboko Portua, erreferentea esportazioetan

Beste alde batetik, 2016an 200.000 tona fruta eta ortuari igaro ziren Bilboko Portuko instalazioetatik. Trafiko horren parte nagusia, %77 inguru, esportazioei dagokie.

Duela denbora gutxi hobekuntzak egin dira Portuko azpiegiturretan, elikagai freskoen trafikoaren mesederako. Alde batetik, edukiontzien terminala kudeatzen duen Noatum Container Terminal Bilbao enpresak eta Portuko Agintaritzak sarbide automatizatu prozedura definitu dute edukiontzien terminalaren ate berrietan. Prozedura hori irailean hasi da funtzionatzen, eta operatiba guztia arintzen eta sinplifikatzen du, produktu freskoen garraiolariena barne. Beste alde batetik, reefer hartune kopurua handitzeko hobekuntzak egin dira, eta orain 540 daude.

Horrez gain, Noatum bere trenbide terminala handitzen ari da, eta datorren urtearen erdialderako 550 metroko trenak operatu ahal izango ditu. Horrek eragin zuzena izango du Portuarekin dauden trenbide loturretan. Gaur egun, astean 110 tren sartu eta irteten dira bertatik. 2016an tren horiek edukiontzietan zihoan kargaren %21 eta karga orokorraren %19 kudeatu zuten.

Halaber, Portuan instalatuta dagoen Progeco Bilbao enpresa, hozkailu-
edukiontzien ordezeko piezen marka garrantzitsuenen dealer baimendua da,
eta reefer unitateen konponketarako 24/7 zerbitzua eskaintzen du. Enpresa
horrek 12 kai ditu dagoeneko –1.500 metro karratu inguru– cross-docking-erako,
produktu galkorren leku aldaketarako tenperatura kontrolatuan, hozkailu-
kamioitik edukiontzira; eta hozkailu ekipoen konponketan espezializatutako 400
metro karratuko tailerra ere badu.